

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBAK  
**HISTORIA AZTERKETA**  
2007-2008 IKASTURTEA

ARGIBIDEAK: Ikasleak proposatzen diren A eta B aukeretako baten galdera guztiak erantzun behar ditu. Galdera bakoitzean adierazten da gehieneko puntuazioa zein den.


**A AUKERA**

1. zatia. DEFINITU ONDOKO TERMINO HAUEK (Gehieneko balioespena: 3 puntu)

*Monarkia bisigodoa. Karlos III.a "Noblea". Nafarroa Gaztelako Koroan sartzea.  
Bankarrotak. Jovellanos.*

2. zatia: GRAFIKOA: Txandakako alderdiak Erregentzia garaian (diputatu-kopurua)

**Alderdien txanda Erregentziaren garaian  
(diputatuen kopuruak)**



GALDERAK (Gehienez: 3,5 puntu)

- Grafikoaren deskribapena (Gehienez: puntu 1)
- Grafikoaren interpretazioa (Gehienez: 2,5 puntu)

3. zatia: SINTESIA (Gehienez: 3,5 puntu)

*Demokraziarako Trantsizioa: Erreforma eta erreformaren aurkako jarrerak (1976-1982).  
1978ko Konstituzioa eta Espainia autonomikoa.*

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBAK  
HISTORIA AZTERKETA  
2007-2008 IKASTURTEA

ARGIBIDEAK: Ikasleak proposatzen diren A eta B aukeretako baten galdera guztiak erantzun behar ditu. Galdera bakoitzean adierazten da gehienezko puntuazioa zein den.

**B AUKERA**

1. zatia: DEFINITU ONDOKO TERMINO HAUEK (Gehienezko balioespena: **3 puntu**)

*Altamira. Mozarabiarrak. Inkisizioko auzitegia. Odol-garbitasuna. Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte Ekonomikoak.*

2. zatia: TESTU HISTORIKOA: *Autarkia ekonomikoa. INI sortzea*

*Hitzaurrea. Gure ekonomia indartzeko beharra izan zen interes nazionaleko industriak sustatzeko Estatu politika ekarri zuena, oso ahul baitzegoen tradizioz kontrakoa izan den ordainketa balantzak eraginda. 1939ko urriaren 24ko legeak arautu zuen Estatu politika hori. Hala, banakoaren ekimena bultzatu nahi zuten, hainbat abantaila eta berme eskainiz. Haatik, zenbait produkturen ekoizpenak hainbesteko inbertsioak eskatzen zituen, non askotan banakoaren ekimenen esparrutik at joaten baitziren; eta beste batzuetan, irabaziak hain ziren apalak, finantza erakundeentzat ez zirela batere kitzikagarriak, eta herrialdean aurreztutakoa beste jarduera batzuetara bideratzen zuten, Aberriaren interesen kalterako. Bestalde, defentsa nazionalaren aginduek enpresa berriak sortzea eta zeudenak ugaritzea eskatzen zuten, (...). Gainera, gure Nazioan ez dago industria programa handi hauek finantzatzeko moduko erakunderik. Hala, erakunde baten beharra sortu da, gaitasun ekonomikoarekin eta nortasun juridikoarekin, gure Nazioko industria suspertzeko programa handiak eraiki eta abian jartzeko, (...).*

*Horri esker, Estatuak jaso eta bideratuko du aurreztutakoa, eta herrialdeko ekonomiaren egiazko laguntza bilakatuko du, betiere Mugimenduaren printzipio politikoekin bat eginik.*

*1. artikulua. INI Espainiako Industria Institutua sortzen da, Zuzenbide publikoko erakundea. Bere helburua: nazioaren zerbitzura, industria berriak sortu eta suspertzea, (...) batik bat herrialdea defendatzeko; eta gure autarkia ekonomikoa lantzea, Espainiako aurrezpenari inbertsio ziur eta aktiboa eskainiz.*

1941eko irailaren 25eko Legea. *Legegintza Hiztegi Berria*. Zizur Txikia: Aranzadi, 1998, XIII. liburukia, 17442. or.

GALDERAK (Gehienez: **3,5 puntu**)

- a) Kokatu testua bere testuinguru historikoan (Gehienez: puntu 1)
- b) Aipatu INI sortzeko arrazoiak (Gehienez: 2,5 puntu)

3. Zatia: SINTESIA (Gehienez: **3,5 puntu**)

*Sistema liberalaren aurkako jarrera: Lehen karlistaldia.  
Foruen auzia eta 1841eko Foru Legea. Nafarroarentzako ondorioak.*